

2. O.M.A: Metatzearen hiria (I)

1. Sarrera: O.M.A. (*Office for Metropolitan Architecture*) Rem Koolhaas arkitektoak 1975ean Rotterdamen sortutako arkitektura-bulegoa da. Koolhaas kazetari gisa lan egin zuen arkitekturako ikasketak burutu baino lehen. Hori dela eta, hedabideak eta propaganda ezin hobeki maneiatzen dituen arkitektoa dugu. Haren proiektuek egitura formal potentia izan ohi dute, hirigintza eta arkitekturaren arteko mugak eskuarki ezabatzen dituztenak. Zentzu horretan, honakoa esan zuen:

“Hirigintzako esperientziak gure arkitektura aldatzen ari zela nabaritzen hasi ginen. Hirigintzan egin genezakeen hura – mugak zabaldu, aukerak sortu- arkitekturaren egitea interesgarri bihurtu zen.”

Koolhaas, Rem, “*S,M,L, XL*”, 010 Publishers, Rotterdam, 1995, 1.204. or.

2. Zaila da OMA bulegoaren lana laburbiltzea, baina honako 4 puntu interesgarri azpimarra daitezke, guztiek pragmatikotasuna eta proiektuaren aurrera-egitea ahalbidetzen dituztela (horrenbestez, estrategiak direla esan daiteke):
 - Proiektu batzuk beste arkitekto esanguratsuek egingo luketenaren ustean oinarritzen dituzte. Paper zuriaren aurrean lan egiteko sistema gisa ulertu beharra dago hori. Ikerketaren ondoren, ikuspuntu guztien oreka bilatu daiteke, baita inork proposatu ez duen ebazpena ere.
 - Beste proiektu batzuk egitarauaren antolakuntza sistematikoan oinarritzen dituzte. Egitaraua egituratzeko sistema edo lege bat ezartzen da, eta horri jarraiki garatzen da proiektua.
 - Beste proiektu batzuk hutsaren antolakuntzan oinarritzen dituzte. Betea edo eraikia proiektatu baino, hutsa diseinatzen da. *Hutsunearen estrategia* esaten diote proiektatzeko modu horri.
 - Hirigintza arkitektura proiektatzeko ideien iturburua izan daiteke. Alderantziz ere bai.
3. Ij-plein eremuaren plangintza, Amsterdamgo iparralde, 1980-1989 (1.400 etxebizitza, eskola bat, supermerkatu bat eta auzunerako eraikin publiko bat; 108 Ha. inguru; dentsitatea=13 etxebizitza/ha). Hasierako nahia: dentsitatea dorreen bitartez areagotzea, ur-bazterrari altxaera monumentalak emanez. Paper zuriaren aurreko estrategia: dentsitate egokia (edo arautua) finkatuta, pentsatzea zer egingo lukeen Le Corbusierrek, Hilberseimerrek Mies Van der Rohek edota Gropiussek. Azkenean, antzekotasunetan oinarrituta, bi eremu ezberdin planteatu ziren: bat eraikin altu eta oinplano karratuekin, eta bestea eraikin baxu eta luzeekin. Dena lotzen ibilbide publiko interesgarria antolatu eta garatu zen.
4. La Villette parkearen konkurtsoa, Paris, 1982-1983 (35 ha). Egitaraua neurtu zen eta modu pragmatikoan antolatu ere: zerrendetan, alegia. Zerrendek, sareek bezala, zurrinak dirudite, baina malgutasun osoa eskaintzen dute aldagetak jasotzeko. Zerrendotan, beraz, gainerako geruzak gainjarri ziren:
 - Puntuak edo *confettia*. Elementu txikiak: picnic eremuak, tabernak, informazio-kioskoak, jolastokiak...
 - Irisbideak eta zirkulazioa: ipar-hego bulebarra, *promenade* edo ibilbidea...
 - Elementu nagusiak: tokian jada zeuden eraikin industrial handiak eta bestelakoak.
 - Lotura nagusiak.Esan daiteke proiektuaren muina ez zela “zer itxura zuen” (diseinua), baizik eta “zelan funtzionatzen zuen” (antolakuntza-estrategia).
5. Melun-Sénart hiri berria, 1987 (Senart osoak gaur egun 12.500 ha eta 107.000 biztanle ditu). Eremuaren tamaina izugarria zenez zaila zitzaien zer eta nola eraikitzea erabakitzea. Hori dela eta, non ez eraikitzea antolatu zuten. Hutsune batzuk basoak babesteko proposatu zituzten, eta beste batzuk egitarau publikoa jasotzeko bakarrik. Ifrentzuan, etxebizitzak, azpiegituraketa ezberdinei jarraiki.
6. La Défense eremuaren plangintza, Paris, 1991 (760 ha). *Tabula rasa* aplikatzea proposatu zuten, baina ez guztiz, eremu ikutuezinak ongi babesteko bait ziren. Halaber, eraispenak faseka egitea planteatu zuten. Lurzoru eraikigarri berrian, subjektibotasuna ekidi aldera, Manhattango sare bera proposatu zuten (65 x 260 m).